# KARMEL

Urrian Urtea — Seigarren Atala — (Larrea Zornotza)

Depósito Legal BI 79 — 1958 — Gráficas Bilbao


# Aita Santua il...

Gaiñan munduko zauzia, eriotza... Iru egunean eur jauzko... Azkenian, bildurrez gen zeudena, XII'n Pio Doipurua il da. Tisserant Kardinal aurrenekoak ikusi, ikutu ta esan leuez: «*Vere Papa Pius XII mortuus est*, benetan il da XII Pio Aita Santua».

Kaiarrekin guztietan Errosario eguna ospatzen. Aita Santuak lan eta lan diardu emonen alde, ta palcatu... Egun gitxirako tak, eda azkeneko lan-eguna yakola, eta ekian? Geroz iru egunen gaiñetik. Gorputza altari ta arimea maitarenez miñdua, Jaunarekin alkartuta gastean dau maitasunaz.

Aita Santua, Kristo'ren Ordezka, gure Aita Artzain, Amabigarren Pio, jakitun aurrera jagon-maitatzaille ta Artzain arduratsua; Mariaren eta Maria'ren aunditasun Zabaltzaille zolia, Jaun-maitatzaille ontin, Aingerulaun, Gurutze bat bular gaiñean, eskuetan Errosarioa, Errosario illean, Laterri guztietatik Errosario-pelegrinazioa Lourdes'era egiten zan artean, Siñismen Zabalkuntza gunau eban Santuaren egunean, Aita Santua il. XII Pio gizonik aguguerdena, Aita Santurik Aundienetarikoa.

Urriaren bederatzian, goizeko lauretik soortzi miñutu gitxiago gorputz geratu zan. Bere azkeneko itzak: *Otoitz, otoitz; Elizarek danon egoñera larri ain emaitu daiten.*

Bere obia, Amargarren *Pio Santua* egon zana laungo da. Azpildiz Aita Santuak Batikano'n il dira; Amabigarrena Pio Kastelgandolfo'n. Milkai laguntzik gora izan dira Erroma'raño lagundu dautsenak.

82 urte, zazpi illabete ta zazpi egun bizi izan da. Emeretzi urte, zazpi illabete ta zazpi egun Aita Santu.

Goian bego, ta lagun begigu zerutik, aldi negargarri onetan. Betorkigun Berak ain bizi opa ebazan zuzentasuna ta bakea.